

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea


EHUREKA AHOLKUAK


33

IDATZIZKO TESTUAK ERRAZTEN

[www.ehu.es/
azpidazki](http://www.ehu.es/azpidazki)


EMUN
LANA, EUSKALDUN ZEKO
KOOPERATIBA






ZENBAIT ESTRATEGIA

- **Testu antolatzaileak** erabili, ahal dela ezagunak: *behin, egun batean, halako batean, hasieran, gero, azkenean, nire ustez, horregatik, beraz, hori dela eta, ...*
- Saiatu **esaldi laburrak** erabiltzen (10-15 hitz?). Ulergarria izateko ez da nahitaez laburra izan behar, zuzena eta ondo idatzia baizik: ideiak ondo antolatuta eta hitzak ondo lotuta (**koherentzia eta kohesioa**).
- Ahal den neurrian, **saihestu menpeko esaldiak**.
- Saiatu euskarazko **esaldiaren ordena mantentzen**, ahal den neurrian.






ZENBAIT ESTRATEGIA

- **Hiztegiak** garrantzi handia du testua errazteko prozesuan. Jasotzailearen mailaren arabera, batzuetan oinarrizko hiztegia erabili beharko dugu, nahiz eta hitzak errepikatu.
- Esangura bat baino gehiago duten hitzetan **erabiliena eman**.
- **Hitz ezezagunak testuan bertan azaldu** daitezke (azpian, alboan, beste modu batera esaten, ...).
- Hitz bat oso garrantzitsua bada ulermenerako, haren **itzulpena ere jarri** daiteke (edo erabiliagoa den sinonimo bat).





ZENBAIT ESTRATEGIA

- Batzuetan **elipsiek testua ilundu** dezakete: kasu horietan, beldurrik gabe errepikatu ekintzaren subjektua. Azken finean, garrantzia du ulermenak, ez beste ezerk.

- **Ez erabili pertsonifikaziorik:**

**Irakasleriak*



Irakasleek


- **Ekintza adierazi aditzaren bidez:**

Adibidez:

** Lanaren astunak eta bakardadeak nekea eta haserrea eragiten dizkit*

Lan astuna da eta, bakarrik egiten dudanez, nekatu eta haserretu egiten naiz.





ZENBAIT ESTRATEGIA

- **Subjuntibo eta potentzialak era sinplifikatuan erabili:**

**Egin dadin* → egiteko

**Egin dezakegu* → egin ahal dugu

- **Ezezko bi** dituzten esaldiak **saihestu**: **ezin daiteke ezetzik esan*

- **Erlatibozko esaldiak tentuz erabili** eta bakarrik behar denean.

Batzuetan errazagoa egiten da era zuzenean ematea eta ez erlatibozko esaldien bidez.

